



# BIZIA TA HERIOTZA / HERIOTZA TA BIZIA

Doinua: Bizia sortzen, hazten, garbitzen

Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)



Leire Casamajou Elkegarai

- 1** Abio baktotzak beitü etena gure bizitzeak **ere** destino horren menpe ez denik ez da ezagüt **batere** eta etena borrokatzen da nahiz jakinik **halere** hastetik bürü bizi oroen herioak düala **botere**
- 2** Gogo günüke salborik elki gure bizi **istorioaz** alta kordoka ari den orekan urteak aitzina **doaz** ohartü ümen gira beranxka gaüzek züen **balioaz** eskasiatik hazi inbeaz mentsetik sortü **gogoaz**.
- 3** Zonbaitentako hain llabür eta hain lüze **besteentako** bata besteari inbea deio ez beitü haren **gisako** ederra dena hain eder ote lizatea **denentako?** Iraünen balü infinitüan ez günüküan hain **gustüko**
- 4** Nahiz lotsatü, nahiz beldürtü nahiz gaüetan **iratzarri** nahiz nigarrak, nahiz ikarak, nahiz zaigün **harrigarri** biez bat edo batez bi dira txori biga, baktotx **harri** herioa da egiten düana bizitzea **bizigarri**.

